



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera egin dezan, baliabideak multzo desberdinetan banatuta daude: fisikoak, materialak ez direnak eta giza baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, bulegoa eta biltegia bilduko dituen espazioa izango da garrantzitsuenetariko bat. *GuZumek* ez dituenek produktua ekoizten, ez dugu espezializatutako makinen beharrik izango, baina bai etxez-etxe banaketarako behar izango dugun furgoneta. Kutsadura aldetik jasangarriagoak izanez kutsadura ahalik eta gehien murrizteko asmoz, hibridoa den furgoneta mota izango da gurea.

Azkenik, eta baliabide fisikoekin amaitzeko, bulegorako eta biltegirako hainbat baliabide behar izango ditugu: ekipamendu informatikoa, bulegoko altzariak, biltegioko apalategia, telefonoa eta material korrontea besteak-beste.

Baliabide ez-materialei dagokienean, webgunea izango da garrantzitsua; eta honek, domeinua eta hosting zerbitzuaren beharrak dakartza besteak-beste. Zentzu honetan, *Hostgator Starter* plana aukeratuko dugu, urtean 95€ ordainduz.

Giza baliabide eta baliabide intelektualei dagoekionean, proiektua martxan jarri eta beronen funtzionamendua bermatzeko nahikoa izango gara taldea osatzen dugun sei kideak. Marenek bere komunikazio gaitasunak jarriko ditu proiektuaren zerbitzura, Jon Mikel gidari eta banatzaile bezela arituko da, Aiora sare sozialen ezagutzaz eta webguneekin duen trebetasunaz baliatuko da, Elenaren antolaketa gaitasuna eta txukuntasuna paketeen erregistro eta antolaketarako ezinbestekoa izango da, Paulok zenbakiekin duen trebetasuna gure administrazio lanetan erabiliko du, eta azkenik, Ainhoak produktu guztiak dendetatik jasoko ditu, herria oso ondo ezagutzen baitu. Bada guztiok amankomunean dugun funtsezko ezaugarri bat: Zumaiarrak garen heinean, gure proiektuaren xede den komunitatearen parte gara.

